

## GEHIAGO JAKIN NAHI?

**BIDEAREN AMAIERAN ANTZERKIA** Hortzmuga Teatroaren kale ikuski-zun berria da. Dagoeneko 20 urtetik gora igaro dira Pedrin Divina Pedrea bilakatuta agertu zenetik, bere auzokide guztien aurrean. Dena perfektua zatekeen, edo ia, bere aita Pedro, betiko sindikalista sutsua, bertan agertu izan ez balitz. Kaleko komedia emozionala, publiko guztiari zuzendua, umorez, endreduz eta sentimenduz betea. [www.hortzmuga.com](http://www.hortzmuga.com)

**HURRENGO GELTOKIA DANTZA IKUSKIZUNAREKIN**, bizitza bidaia gisa erakusten digu Aukeran dantza konpainiak. Maletak, norbanakoaren eta norberaren probabilitateak biltzen dituen metafora, kohesio elementua dira guztiontzat berdintsuak diren indarrak eta gaitasunak jarduten duten bizi-prozesuan. Bidaiari bakoitza, bere ekipajea aldean daramala, lekuz aldatzen da. [www.aukeran.com](http://www.aukeran.com)

**KORAPILOAK ZIRKU IKUSKIZUNAK** hiru pertsonaiak gorputzaren eta mugimenduaren bidez sortutako unibertsoa hartzen du abiapuntutzat. Umorea eta zirku garaikidea oinarri hartuta, mundu desberdinak biziko dituzte Rojo Telón konpainiako hiru emakumeek, lurretik muturrak lotzen eta gaur hitz egin nahi duen korapilo hori airean askatzen. [www.rojotelon.com](http://www.rojotelon.com)

**NEOMAK MUSIKA TALDEA** Gipuzkoako herri ezberdinetako zazpi ema-

kumek osatzen dute. Ahotsen presentzia nabarmenez eta beti alboan izan dituzten trikitixa eta pandero ezberdinak uztartuz, Ilargi berriak eskaintzera datoz, Neoma hitzak berak dioen bezala.

**NUMENAK ANTZEZLANEAN** Lambro eta Leka ezagutuko ditugu, para-je menditsu batean bizi diren bi Galtzagorri bihurri. Ezagutzen ez duten ama ezagutzeko ibilbidean, euskal mitologiako hainbat pertsonaiekin egingo dute topo, ekintza eta egoera dibertigarriak biziz. Yarleku Teatro konpainia nafarraren antzezlan da.

**FILI BUSTERS ZIRKU ETA CLOWN** ikuskizunean beren bizitza, zein inguratzen dituen, arriskuan jarriko du Mortelo & Manzani clown eta zirku bikoteak. Zirku eta pailazo proposamen dibertigarria, funambulismo teknikare, oreka eta tramankulu bakarrarekin jokatuta. Reus – Tarragonako konpainia da. [www.mortelomanzani.com](http://www.mortelomanzani.com)

**DUPLA MUSIKA TALDEA** 2019an Agurainen sortu zen pop taldeak ukitu elektronikoa zein hip-hop nahasten ditu musika urbanoa eginez. Zuzenekoetan, ahotsa zein bateria, elektronikaren indarrarekin nahasten dituzte. *Folklore* (2019) eta *Nahieran* (2021) dira beren diskografia osatzen duten bi lanak. Gari Uriarte eta Beñat Oribek osatzen dute taldea.

Afari-merienda parkean bertan egiteko aukera.  
Etxetik ekarrita edota bertan erosita.



Animete a cenar en el parque. Puedes traer  
la comida de casa o adquirirla en el parque.

Juillet / July / Julio / Julie / Juliol / يوليو / Uztaila 28, 29, 30

Etorri eta gozatu! / Vine i gaudeix! / Veniti si bucurati-va!

Profitez du programme! / Enjoy the party! / إتعمال واستمتع / Ven y disfruta!



Hernaniko  
Udala



Laguntzaileak:  
Eusko Jaurlaritza  
Gipuzkoako Foru Aldundia

# UDAPARKEAN 2022

AVE MARIA PARKEA - UZTAILAK 28, 29, 30



## UZTAILAK 28-OSTEGUNA



17:00  
**JOLASAK**  
Naturan jolasean.  
Txatxilipurdi elkarteak  
dinamizatua  
0-4: jolas sinbolikoak  
5 urtetik gora: naturako  
elementuekin eskulana  
☂ Atsegindegin

## UZTAILAK 29-OSTIRALA



16:00  
**JOLASAK-BUBBLES**  
☂ Atsegindegin



17:00  
**HAUR JOLASAK**  
Ekojolasak. Plasti-plastak dinamizatua  
0-12: Tailerra material natural desegituratuarekin  
homiturako txoko ezberdinetaz osaturik dago.  
☂ Atsegindegin

## UZTAILAK 30-LARUNBATA



17:30  
**HARTUBOL**  
Goiz Eguzki Elkarte eta HKE



19:00  
**HAURRENTZAT ANTZERKIA**  
Yarleku  
Numenak  
☂ Biteri kultur etxean



19:30  
**ANTZERKI FAMILIARRA**  
Hortzmuga  
Bidearen amaieran  
☂ Atsegindegin



21:30  
**DANTZA**  
Aukeran  
Hurrengo geltokia  
☂ Atsegindegin



20:30  
**ZIRKUA**  
Rojo Telón  
Nudo  
☂ Atsegindegin



22:00  
**KONTZERTUA**  
Neomak  
☂ Atsegindegin



20:30  
**ZIRKUA-CLOWN**  
Mortelo & Manzini  
Fili Busters



22:00  
**KONTZERTUA-GAZTEAK**  
Dupla  
☂ Atsegindegin